

Urtariletik urrira bitarte %7,8 jaitsi da gaikako bilketa

Amasa-Villabonako Udalak informazio kanpaina jarriko du martxan egoera lehengora bueltatzeko; «kezkatuta» dago geroz eta hondakin gehiago botatzen delako lurrera // 5

**Minbiziaren
aurkako
elkarteak
bazkide berriak
nahi ditu** // 6

**Gazte Fronteak
beharrak
asetzeko
espazioa
aldarrikatu du** // 4



TOLOSA JASOTA GERATZEKO

Tolosan izandako eta tolosarrek pairatutako indarkeria eta giza eskubideen urraketen inguruko egia ahalik eta modurik zabalenean ezagutu eta dokumentatzeko webgunea osatu dute Tolosako Udalak eta Aranzadik // 4



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA , GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



✉ GUTUNA

**Bonberenea 23 urte!
Garai zailetan, itxaropen
izpiak!**

Bonbereneari buruz zer-bait esan behar izanez gero, esango genuke gure etxea dela. Beste urtebete egin dugu etxe honetan, gure etxean, gure egin dugun gune honetan. 23 urte bete ditugu jada, eta oraindik ere gogor dihardugu lanean, betiko moduan!

Etxe honek betiko dinamika-ekin jarraitzen du, nahiz eta pandemia garaian funtzionamendua zertxobait egokitu behar izan dugun. Proiektua sortu zen garaian, inguruan kultur dinamizak ez, eta tokia bete genuen kultur jarduera bermatzeko eragile gisa. Gaur egun, asmo horrekin jarraitzen dugu aurrera. Etxeak etengabeko aldaketak izan ditu, belaunaldi berriak gehitzen joan dira, eta hori gure aldaketen isla paregabea da.

Aldaketak beti gertatzen dira, eta, pareta hauen barruan, aldaketek zerbait berria esan nahi dute. Aurtengo kasuan, goiko solairuko komuna zein sukaldea berriro ditugu, eta pabiloiko aretoan sarrera berria eta larrialdi irteera eraiki ditugu guztion artean. Horrez gain, kolorez egin behar da kultura, eta kolorez pintatzen ditugu gure paretak: udazkena negu bilakatzen hasi den unean, kolorezko grafitiez margotu dugu eguraldi grisa.

Etxeako ikasketa prozesua ere etengabe mantentzen da. Hainbat gauza ikasteko aukera dago hemen, beti bezala: musika tresna bat jotzen, soinu edo argi teknikari lanak, sukaldaritza... Aurtan, COVID-19aren protokoloak izan ditugu ikasgai nagusia.

Birusak birus, etxeako oholtzak ere sutan jarrai dezan, lan handia egin dugu hainbat esparrutan. Izan ere, musikaren arloko lana gure ardatzetako bat da, hemen gertatzen den guztirako

ezinbestekoa, eta lan hori guk geuk egiten dugu, maitasun izugarri. Oholtza honetatik, urtero bezala, hainbat talde pasatu dira: ezagunak, berriak, ez hain ezagunak, betikoak... Askotariko estiloz bustiak, ahal den neurrian eskaintza aberatsena eskaintzeko zentzumen eta gustu guztiei.

Bestalde, Bonbereneako tabernan urte askotan ohiko garagardoekin lan egin eta gero, garagardoaleek etxeako garagardoa dastatu ahal dute orain, eta bi motatakoak gainera: Bonbier Olki American Pale Ale eta Bonbier Liztor Pilsen. Izen horiek gure bi txakurren omenez aukeratu ditugu, etxeako zaindari eta lagun ditugunak. *Bonberenea Irratiak* ere beste urtebete egin du martxan, etxean bertan ekoiztutako musika eskaintzen. Era berean, gure grabazio estudioan zenbait disko grabatu dira aurtan, Killerkume, Petti, Arima, Losado, Viva Belgrado, Sacco eta Estarlus.

Bonberenea Ekintzak da etxe honen zigilua, kultura autogestionatuaren plataforma eta eragilea. Aurtan ere ez gara geldirik egon zentzu horretan, eta hiru erreferentzia gehitu ditugu gure katalogora: Rodeo - *Ezherrian* (10" EP/CD), *Lepora* (LP/CD) eta *Losado* (10" EP-CD).

Amaitzeko, argi utzi nahi dugu etengabe defendatuko dugula gure posizioa eta lekua. Jada 23 urte dira hemen gaudela gure lana egiten: kultura indartzen eta eskuragarri egiten, bai publikoarentzat, bai talde hasiberrientzat. Gure ustez, hori da gure eginbeharra, gure lana eta legitimatzen gaituena. Horregatik, aurtan, 23 urteko zabalana gainean harturik, Bonberenea inoiz baino legitimoagoa da. Guk hemen jarraituko dugu. Nahi izanez gero, zu ere animatu zaitetz parte hartzera! Izan piromano eta zabaldu sua!

Bonberenea Tolosa



Tolosako Lopez Mendizabal pasealekuan, herritarrak tabernetako terrazetan. IMANOL GARCIA

Tabernek eta terrazek bizia hartu dute berriro eskualdean

Tolosaldeko herrietako osasun egoera kontuan hartuta, herri guztietan dago baimenduta ostalaritzaren irekiera, eta asteburuan jende ugari izan da taberna eta terrazetan

Erredakzioa Tolosaldea

Larunbatetik aurrera tabernetan eta terrazetan bezeroak izateko aukera zabalik dago, Eusko Jaurlaritzak COVID-19aren inguruan onartu dituen neurri berrien ondoren. Tolosaldearen kasuan, bertako 28 herrietako ostalaritzak du baimenduta irekiera, eta mugimendu handia izan da asteburu osoan zehar.

Larunbat goiz eta eguerdian Tolosak berezkoak ditu jendearen joan-etorriak, inguruko herrietako jendeak gerturatzeko ohitura baitu bertara, eta igaro berri denean ere sumatu zen

hori, eguraldiak asko lagundu ez zuen arren. Neurri berriak orduan jarri ziren martxan, eta norbere herritik ateratzeko debekua kenduta, ostalaritzak arnas pixka bat hartzeko aukera izan zuen. Bezeroek erantzun zuten, eta terrazetan zein tabernen barruan izan ziren, aspaldiko partez.

Hain justu, azken neurriek zehazten dutenez, tabernak eta jatetxeak 20:00ak arte ireki ahal dira, eta goizean, 06:00etan zabaldu ahal dituzte. Beti ere, herriaren egoerak baimentzen badu, izan ere, azken hamabost eguneko intzidentzia tasak 100.000 biztanleko 500 positibotik beherakoa izan behar du ostalaritzak ireki ahal izateko. 5.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan hartuko dute kontuan hori, eta herri txikiagoetan unean uneko egoerari errepertuko diote.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanetarako. Etxeko lanak egiteko pertsona euskaldun bat behar da Tolosan. Interesatuak deitu: 688 78 44 12.

27 POSITIBO

Bestalde, 27 positibo berri izan dira ostiraletik igandera eskualdean, Osasun sailak emandako datuen arabera. Anoetan 8, Adunan eta Tolosan launa, Alegian eta Ibarra hiruna, Amasa-Villabonan 2 eta Gaztelun, Iruran eta Zizurkilen positibo bana atzeman dituzte.

5.542 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik 336 (%6,1) positiboak izan ziren. Gipuzkoan 115 atzeman zituzten, tartean, 7 Tolosaldekoak. Larunbatean 7.695 test egin zituzten eta positiboak 464 (%6,0) izan ziren. Larunbatean Tolosaldean 6 positibo atzeman zituzten, Anoetan 2 eta Alegian, Tolosan, Amasa-Villabona eta Zizurkilen bana. Ostiraletan, berriz, 8.783 proba egin zituzten eta 636 (%7,2) izan ziren positiboak. Tolosaldearen kasuan, 14 positibo atzeman zituzten ostiraletan, Anoetan 6, Adunan 4 eta Alegian, Gaztelun, Iruran eta Tolosan bana.

Ospitaleen egoerari dagokionez, COVIDaren ondorioz 26 pertsona ospitaleratu zituzten atzo, orotara 375 pertsona daude Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ospitaleetan, eta 112 daude ZIU-n.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 BILBOKO ARTE EDERRETAKO MUSEOA

Bi lagunentzako
bina sarrera

museobilbao.com/eu
BILBO

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



2 2021. URTEKO EUSKARAZKO

AGENDA BI
Eskure Euskal
Papergintza
euskal herrian
diseinatuak eta
inprimatuak.

eskure.eus

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean

Eszena bonua, kulturaz gozatu ahal izateko

Kultur ikuskizunetarako 10 sarrera deskontuarekin eskuratzeko aukera eskaintzen du; ekainaren 30a bitarte erabili ahal da

Erredakzioa Tolosa

Eszena bonua atera du Tolosako Udalak eta arte eszeniko zein musika egitarauan biltzen diren ikuskizunetarako eta emanaldietarako 10 sarrera deskontuarekin eskuratzeko aukera ematen du.

Sistema berri honek hainbat abantaila dituela esan du Izarne Iglesias Kultura zinegotziak, eta zine bonuen erabilera sistema berdina izango duela. Tolosako Udalaren arte eszeniko eta musika egitarauko emanaldietan erabili ahal izango da, saio bakoitzetarako gehienez bi sarrera erabili ahal dira, eta bonuak 2021eko ekainaren 30a arteko balioa izango du. Abantaila nagusia, ordea, prezioan egongo dela esan du udalak: 10 saiotarako bonuak 50 euroko prezioa izango du, eta, hortaz, sarrera bakoitza erdi prezioan eskuratuko da. Kultura Sarrerak webgunearen bidez erosi ahal dira.

KULTURAREN ALDEKO APUSTUA

«Tolosako Udalak kulturaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, kultur adierazpen guztiak sustatzeko. 2020 guztian zehar, eta batez ere itxialdi garaian eta ondoren, herriko artistak, eskualdekoak eta Tolosaz kanpoakoak babesteko lan egin dugu, eta horren adibide dira antolatu ditugun ekintzak: herriarren eskura jarritako *online* baliabideak, udako zein udazkeneko programazioa, Kultura Plazara egi-



Izarne Iglesias Kultura zinegotzia, erdian, azalpenak ematen. ATARIA

tasmoa...», esan du Iglesiasek. Bide horretan beste urrats bat gehiago da Eszena bonuena. «Herriarrek kulturaz gozatzen jarraitzea nahi dugu, eta horretarako erraztasunak eman nahi ditugu. Eszena bonu berriek hainbat abantaila dituzte, eta horiekin herriarrek kulturara gerturatu nahi ditugu», gehitu du.

Hala, Kultura zinegotziak, udalaren izenean, herriarrek «kultura oparitzera» animatu ditu: «Gabon hauetan oparitu kultura, Eszena bonuen bidez edo bestelako edonolako formatutan, baina kultura oparitzera animatu nahi zaituztegu. Kalitatezko kultur eskaintza izango dugu herrian datozen hilabeteetan ere, hurrei, gazteei zein helduei zuzendutako emanaldie-

kin, euskarazko egitarau zabal batekin. Beraz, jarrai dezagun kultura sustatzen eta kulturaz gozatzen».

KULTUR EGITARAU ABERATSA

Kultura sustatzen jarraitzeko, neguko kultur egitarau aberatsa antolatu du Tolosako Udalak herriko beste hainbat elkarte eta eragilerekin batera. Hala, urtariletik aurrera musikaz, antzerkiaz, bertsolaritzaz, haurrentzako emanaldiez, dantzaz... gozatu ahal da Tolosan.

Ikuskizun guztiak Leidorren izango dira, momentuko egoerak eskatutako segurtasun eta osasun neurriak kontuan hartuko dira une oro, eta ondorioz, baliatzeke prestatutako emanaldietan aldaketak egotea datozen asteetan.

Zorionekoak gu

Iritzia

Shrabani Aranzabe

Musikaria eta Musikeneko ikaslea

Azken kontzertuaren faltan, Tolosako Abesbatzen Jaialdia arrakastatsua izan da. Ostiralean Conductus Ensemble izan genuen, larunbatean Suhar gizon korua eta herenegun Kea Ahots Taldea.

Antolakuntza apartarekin kontzertu hauek benetan arrakastatsuak izan dira, ia egunero San Frantzisko elizako aforoa beterik izan delarik. Koruek oso ongi defenditu dituzte euren programak. Askotan, aurten faltan dugun lehiaketari keinu eginez.

Tolosako Abesbatzen Lehiaketa nazioartean oso ezaguna den koru lehiaketa bat da eta modalitate ezberdinez osaturik dago. Horien arten, musika sakroa, profanoa, polifonia eta folklore modalitateak dira nagusi.

Lehiaketaren arauen artean dago koru guztiek obra jakin batzuk kantatzea eta euskal musika edo euskal konposatzaile batek eginiko obra bat. Horrela, euskal koru musika eta haren konposatzaileen zabalkunde bat eman da, mundu guztian gure konposatzaileak ezagun bihurtuz.

Suhar koruak ederki agertu ziren guzti hau Esteban Urzelaireren zuzendaritzapean eta pianoan Amaia Zipitria zelarik. Euren programa *Mundutik Etxera* bi zatitan banatu zuten: lehenengo zatian, F. Schubert, F. Poulenc, A. Dvorak, Ola Gjeilo eta hainbat konposatzailearen obrak kantatu zituzten. Baita lehenengo urteko lehiaketan abestu behar izan zen Albert Alcarazen *Nunc Dimittis* obra.

Bigarren zatian, berriz, mun-

duan zehar izan diren konposatzaileetatik etxera etorri ziren, gure konposatzaile eta haien musiketara. Horrela, Javier Busto, Xabier Sarasola, Junkal Guerrero eta Eva Ugaldere obrak entzun ahal izan genituen, gehienak Azkueren kantutegiko moldaketak izanik. Programa honen azken obra, Eva Ugaldere Suhar koruaren zatitatu espresuki eginiko obra benetan polita eta miresgarria entzuteko aukera izan genuen.

Igandean ere, programa potoloa aurkeztu zuen Kea Ahots Taldeak Enrique Azurzaren zuzendaritzapean, musika sakro eta profanoan oinarrituz, gehiena, musika garaikidea izanik.

Ongi aritu ziren obra konplexu eta teknikoki zailak direnak kantatuz. Honen adibide da X. Sarasolaren *Ke Orbelen Meza*. Aita Donostia konposatzaileak ere bere tarteak izan zuen kontzertuan, bere garaian lehiaketan obra behartu izan zelarik. Javier Bello Porturen mendeurrena oroitzuz, kantatu batzuk ere kantatu zituzten, estilo galante eta dotorez jantziak.

Amaitzeko D. Azurzaren obrak abestu zituzten, oso estilo garaikidekoa lehena, kantatzeko zaila, baina oso ondo defenditua. Bigarren Iparragireren melodia batean oinarritua, oso goxoki moldaturikoa. Ederra benetan.

Tolosako Abesbatza Jaialdiari amaiera eder bat emateko, datorren larunbatean KUP Taldea izango dugu Gabriel Baltesen zuzendaritzapean, Miren Urbieta sopranoarekin eta pianoan Amaia Zipitriaren laguntzarekin, San Frantzisko elizan, 19:00etan.

Zorionekoak gu, horrelako kontzertu potoloak entzuteko aukera izateagatik.



GABON HAUETAN OPARITU BERTAKOA, OPARITU ATARIA

Oparitu Atariako harpidetza urtebeterako zuk nahi duzunari, eta lagundu Atarikide sarea zabaltzen!

Atarikide digitala

Lehen 1 x 50€
Orain 2 x 50€

Atarikide harpidea

Lehen 82€
Orain 72€

Egin zure erreserba abenduaren 21a baino lehen. 943 65 56 95 / atarikide@ataria.eus

Tolosako memoriari buruzko webgune berria aurkeztu dute

Giza eskubideen urraketen inguruko informazioa jasotzen duen webgunea osatu dute Tolosako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartek elkarlanean, «memoria berreskuratzeko»

Irati Saizar Artola Tolosa

Tolosako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkartek, giza eskubideen urraketak ikertu eta jasotzen dituen www.tolosaoroimena.eus webgunea aurkeztu zuten ostegun goizean, Giza Eskubideen Nazioarteko Egunean. Tolosan izandako eta tolosarrak pairatutako indarkeria eta giza eskubideen urraketen inguruko egia ahalik eta modurik zabalenean ezagutu eta dokumentatze aldera jarri dute martxan. Aurkezpen ekitaldian izan ziren Olatz Peon Tolosako alkatea, Javi Bueces Aranzadi Zientzia Elkarteko ikerlaria eta Josu Txueka Historia Garaikideko Doktoa; azken honek *Memoria Historikoa eta Giza Eskubideak* hitzaldia eskaini zuen ondoren.

Dagoeneko argitaratuta dauden bi liburuetan jasotako testigantzak, 1939-1945 eta 1945-1975 bitartekoak, barnebiltzen ditu webguneak, baina berriak ere jasoko ditu, «webgune bizia delako, eguneratzen joango dena». Udalak azaldu zuen martxan duela gertuko memoria bilduko duen azken lana eta hortaz, testigantza horiekin ere osatuko dutela webgunea.

Horren harira, izandako giza eskubideen urraketen biktimak guztien aitortza eta erreparazioa ahalbidetze aldera, *Polizia abusuaren biktimei buruzko legea* eka-



Ostegun goizean aurkeztu zuten jendurrean webgune berria. ATARIA

rri zuen gogora alkateak eta jakinarazi zuen, lege horren babesean, biktimak aitortzeko eskaerak aurkezteko aukera oraindik ere irekita dagoela. Herriarrek eskaerak bideratzeko Egiari Zor Fundaziora jo dezakete edota udal webgunean eskura daiteke informazio guztia.

Giza eskubideen kultura garatu eta sakontzeko konpromisoa berretsi zuten amaitzeko eta biktimak guztiei babesa adierazi zieten: «Urte luzeetan gure gizartean izandako giza eskubideen urraketak erreparatzea eta horiek azaleratzea eta memoria berreskuratzen jarraitzea ezinbestekoa da elkarbizitzaren aldeko urratsak egiteko».

URTEAK LANEAN

Tolosako Udalak denbora darama, Aranzadi Zientzia Elkartea-

rekin batera, memoria berreskuratzen, «Tolosako biktimak guztiak gogora ekarri eta aitortzeko, memoria berreskuratu eta herriarrek partekatzen eta elkarbizitzaren aldeko urratsak egiteko helburuarekin».

2006. urtean hasi zen Tolosak herrian izandako eta tolosarrak pairatutako indarkeria gertaerak eta giza eskubideen urraketak aztertzen eta horiek ezagutzera emateko lanak egiten. Geroztik, beste hainbat ekimenen artean, bi liburu argitaratu dira: batetik, 2011. urtean, *Memoriaren izenak. Errepresioa eta giza eskubideen urraketa Tolosan, Gerra Zibilean eta Lehen Frankismo garaian (1939-1945)*, eta bestetik, 2018. urtean, *Tolosa 1945-1975. Giza Eskubideen urraketak eta errepresioa diktadorea hil artean* liburua.



Trianguloan eman zuen prentsurrekoa Tolosaldeko Gazte Fronteak. I.G.L.

«Beharrak asetzeko» espazio baten premia

Ostiral honetan, Ezpalaren aurkako epaiketa egunean, elkarretaratzea egingo dute 19:00etan, Trianguloa plazan

Imanol Garcia Landa Tolosa

«Antolatu ahal izateko, ekimen kultural, sozial zein politikoak gauzatzeko» aldarria eginez, agerraldia egin zuen ostiral arratsaldean Tolosaldeko Gazte Fronteak. Azken urteetan «Tolosan gaztetxe bat eskuratzeko» egindako okupazioak eta ondoren izandako irtenarazteen berri emanez hasi zuten agerraldia.

«2015eko uztailan Larramendiko fabrika hutsean eman zuen lehen okupazioa TGAK, eta honen irtenaraztearen ondotik etorri ziren Ezpalaren, Limusin etxearen eta gaur egun Euskal Herria plazako Bide-Bide hotela dagoen lokalaren okupazioak», azaldu zuten. Guzti horietatik «ertzain zein udaltzainek bota» egin zituztela esan zuten; «eta jasandako errepresioa ere ez da makala izan».

2019ko apirilean Ezpala berriro okupatu zuten, «espazio baten beharrak bultzatuta». Jabearren

salaketaren ondotik, ostiralean epaituko dute kide bat. Egun berean, Trianguloan, 19:00etan, egingo duten elkarretaratzera batzeko deia egin dute.

Beste behin ere «ezaguna zaigun arrisku baten aurrean» dardela adierazi zuten. «Badakigu zer den kalean aurkitzea, antolatze eta gure jarduna garatu ahal izateko inongo aukerarik gabe geratzea», zehaztu zuten. Bide horretatik, «antolatu ahal izateko, ekimen kultural, sozial zein politikoak gauzatzeko, eta oro har, Ezpala erabiltzen duten guztien beharrak asetzeko espazio baten premia» dutela berretsi zuten.

Tolosako Udalari ere zuzendu zitzaion, «behar ezberdinei erantzunak emateko duen erantzukizuna» seinalatuz, eta «era berean, udala izaten ari den zenbait jarrera» salatu zituzten. «Behar ezberdinei erantzunak emateko determinazioa» izan dezala azpimarratu zitoten udalari.



PROBA EZAZU KORTEKO
TURROI
TRADIZIONALA
RAFA GORROTXATEGIEN
ERARA EGINDA

943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus



Tolosan salgai:

Rafa Gorrotxategi
Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Denda:
Korreo Kalea, 17
(Malumbres jostun denda)

Zirku ikastaroa egingo dute Anoetan, urtarrileko larunbatetan

Xomorro elkarteak eskainiko du tailerra eta izen emateak abenduaren 18a baino lehen egin beharko dira udaletxean

Erredakzioa Anoeta

Anoetako Gazteria sailak zirku ikastaroa antolatu du, jolasa eta elkarlana uztartzen dituen eskaintza. «Zirkuaren bitartez norberaren gorputza, gaitasunak... ezagutzeko aukera dago eta baita erronka berriak sortzeko ere. Gainera, edonork bere lekua topatzeko aukera zabala du; oreka, indarra, malgutasuna, teknika eta gorputz adierazpena bezalako kontzeptu ezberdinak nahastun baitira bertan».

Zirku ikastaroa urtarriaren 9an, 16an, 23an eta 30ean eskainiko dute, 16:30etik 18:30era eta segurtasun neurri guztiak bermatuko dira bertan. LHko hiru garren mailatik seigarren mailara bitartekoek parte hartu ahal izango dute. Gazte bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu ikastaroan parte hartzeko eta ohiko beherapenak egingo zaizkie familia ugarietara eta diru sarrerak baxuak dituzten familiei.

Lehen aldiz eskaintzen denez, tailerra hilabetez egingo dute proba gisa eta ondoren, emaitzaren arabera, elkarrekin aztertuko dute ikastaroa luzatu ala ez. Izen emateko udaleko webgunera jo daiteke, gazteria sailera edo bestela bide hauek erabili daitezke: 688 76 13 43 telefonoa edo gazteria@anoeta.eus helbidea. Abenduaren 18a da apuntatzeko azken eguna eta lehentasuna izango dute izena ematen duten lehen 15ek.

Hondakinen gaikako bilketa tasak behera egin du 2020an

Urtarrietik urrira %7,8an murriztu da tasa Amasa-Villabonan. Beheranzko joera gelditzeko, udalak herritarren hezkuntzan jarriko nahi du arreta

Jon Miranda Amasa-Villabona

Amasa-Villabonan gaikako bilketaren tasa %69,46koa da. Azken urteetan lehen aldiz, %70etik behera jaitsi da. Hain zuzen, urte hasieratik urrira bitartean, %7,8an murriztu da kopurua. Udalak hainbat «elementu kezkarri» egiaztatu ditu hondakinen bilketari dagokionez eta egoera lehenagora bueltatzeko informazio kanpaina bat jarriko du martxan. «Gipuzkoa mailan birziklapen tasa handienetakoa zuen herria izan da gurea orain arte. Azkenaldian beheranzko joera nabarmena egiaztatu denez, udalak berriro ere biztanleen hezkuntzan arreta jartzera erabaki du».

Besteak beste herriko eraikinetako administrariei gutun bat helaraziko zaie eta horrekin batera ezkaratzetan jartzeko kartelak banatuko dituzte. Herriko edukiontziz guztietan poltsak lurrean uztea debekatuta dagoela adierazten duen pegatinak ezarriko dituzte. Gainera, Tolosaldeko Mankomunitateko hezitzaileak Villabonako edukiontzien guneetan izango dira aste honetatik aurrera. Hondakinak botatzera doazenei gauzak ondo egiteko jarrai-

bideak emango dizkiete. Amaitzeko, herrira bizitzera datozeinei edo herrian erroldatzen direnei hondakinen kudeaketari buruzko informazioa emango zaie.

JARRAIPEN ZORROTZAGOA

Amasa-Villabonan geroz eta hondakin gehiago botatzen da lurren, edukiontzitik kanpo. Egoera «kezkatzeko» da udalaren esanetan, are gehiago kontuan hartzen bada edukiontzia guztiz zabalik daudela eta eskuekin heldu beharrik ez izateko pedalak jarrita daudela edukiontzietan duela hila bete batzuetatik hona. «Ez da erraz ulertzekoa», esan dute Ingurumen saileko arduradunek. Horregatik Udaltzaingoa jarraipen berezia egingo dio gai honi, alegia, hondakinak edukiontzia kanpoan edota ez dagokion lekuetan uzteari. Poltsak lurrean uzten badira, 90 eta 450 euro arteko isunak jarriko dituzte.

Azken hilabeteetan landa inguruko hainbat espaziotan zabortege inprobisatuak atzeman ditu udalak. Amasa, Amasamendi, Legarreta, Otsabi edota Otelarre auzoetan dauden edukiontzien guneetan geroz eta hondakin gehiago agertzen da lurrean botata. Dago-



Udal ordezkariak eta teknikariak kanpainaren berri ematen. ATARIA

eneko udalak zenbait kasutan zaborra nork bota duen identifikatu du eta hauen aurkako lege ekin-tzak ere martxan jarriko dira.

Komizar parkean zabor pilaketa handiak antzeman dira azken aldian eta ingurune horretan jarraipen sistema berri bat jarriko dute martxan. Parkeko mahaiak zenbatu egingo dituzte eta udaltzainek mahai bakoitzeko ardura-dun bat identifikatuko dute eta pertsona hau izango da mahai eta bere ingurua txukun uztearen arduraduna.

Bide batez, udalak aipatu du Amasako ermitako estalpean, Remi Ayestaran pasealekuan, Arroa eta Errotako ibai ondoko ibilbideko bankuetan, Olaederra atzealdean, Etxeondoko parkean eta Txermin auzoko zenbait lekutan hondakinak agertu direla lurrean botata, batez ere edari latak eta janari ontziak. Horrekin batera, traste zaharrak eta bolumen handiko hondakinak edozein egun eta ordutan azaltzen dira kalean eta udalak jakinarazi du horiek ateratzeko eguna asteazkena izaten dela, 20:00etatik 22:00etara. Aurrez, Tolosaldeko Mankomunitateari jakinarazi behar zaio 943 67 62 16 telefonora deituta.

Gaizki sailkatutako hondakinen berri ere eman du Amasa-Villabonako Udalak. Hondakin organikoaren edukiontzia marroian jasotzen denaren gero eta portzentaje handiagoa ez da hondakin organikoa eta poltsa konpostagarrien erabilerak beherakada izan du. «Organikoa behar bezala ez bereizteak eta edozein poltsa edukiontzia marroira botatzeak, organikoaren kalitatea jaisten du eta kalitate hori oso baxua bada, edukiontzia osoa errefusa bezala kudeatu beharra ekar dezake. Horrek, gaikako bilketan eta birziklatze tasetan eragin oso negatiboa du eta udalak ordaintzen dituen hondakinen kudeaketa gastuak handitzen ditu».

Bere garaian birziklatze tasa %70etik behera jaisten bazen bilketa sistemaren gaineko neurri zorrotzak hartuko zituela iragarri zuen EH Bilduren gobernu taldeak: «Muga mugan gaude eta beheranzko joerak jarraitzen badu, udal gobernuak bilketa sistemaren inguruko erabaki zorrotzak har ditzake». Momentuz jarraipen zorrotzagoa egingo diete hondakinei eta herritarren artean informazio kanpaina jarriko dute martxan.

Ilusioz, mezuz eta kolorez bete ditugu Tolosako kaleak

Zatoz gurekin ospatzera!

Tolosa
&Co

TOLOSA



Herri bat
Tolosa
bete
ilusio

AECC elkarteak bazkide berriak lortu nahi ditu Tolosaldean

Hamar urte bete ditu eskualdean minbiziaren aurkako elkarteak; bazkide berriak lortzeko kanpaina jarri dute martxan

Irati Saizar Artola

Tolosaldean egoitza jarri zuenetik 10 urte bete direla ospatzeko, Minbiziaren aurkako AECC Gipuzkoa Elkarteak bazkide berriak lortzeko kanpaina jarri du martxan, «hazten jarraitzeko eta eskualdeko paziente eta senide gehiagorengana iristeko».

Pandemiagatik ezarritako murrizketek urteurreneko ospakizuna «baldintzatu» badiete ere, ez dute ezer egin gabe geratu nahi izan, eta bideo bat egin dute Tolosaldean 2010etik gaur egunera egindako ibilbidearen lapurpena jasoz. Azaldu dutenez, bideo horrek profesionalen eta boluntarioen ikuspegitik kontatzen ditu mugarri, une eta istorio nagusiak, eta Olatz Peon Tolosako alkatearen lekukotza ere jaso dute. Etkez etxe liburuxka bat banatuko dutela adierazi dute, eta bertan azalduko den QR kodearen bidez bideoa ikusteko aukera izango da; baita sare sozialean bidez ere.

AZKEN DATUAK

Azken hamarkadan 400 lagun baino gehiagok jaso dute zuzeneko arreta Tolosako Emeterio Arrese kalean dagoen egoitzan; bai terapia psikologikoaren bidez, bai gizarte arloko esku hartze edo kudeaketa bidez. Gainera, Tolosako egoitzan erretzeari uzteko terapiak eta logopedia tailerrak ere eskaintzen dituzte, laringektomia egina dutenek



Ostiralean aurkeztu zuten bazkideak lortzeko kanpaina berria. I. SAIZAR

hitz egiteko gaitasuna berreskuratzen. Artxiobotan gordeta dituzten datuen arabera, 433 lagunek jaso dutela laguntza azaldu dute, horietatik erdiak pazienteak, 224 hain zuzen, eta gainerako 209ak gaixo onkologikoen senideak izan direla esan dute.

Iazko datuei begira, minbiziak erasandako 68 pertsonak jaso zuten arreta egoitza horretan. Horietatik 40 pazienteak ziren eta 28 senideak. Saioei dagokierenez, 2019an 198 saio psikologiko eta arlo sozialeko 162 esku hartze egin zituztela azaldu dute. Aurtengo datuak ere adierazi dituzte: gaur arte, minbiziak erasandako eskualdeko 41 pertsonak

jaso dute arreta, 26 senide eta 15 pazienteek. Elkarteak, egun, 765 bazkide ditu Tolosaldean, eta horietatik 75 enpresak dira. Tolosaldeko AECCren lehendakaria den Mari Carmen Gilek esan duenez, «garrantzitsua da konpromisoa eta laguntza aldizkako izatea hazten jarraitzeko, eta gure arreta indartzeko, doako zerbitzuak areagotzeko eta une honetan gure arretarik gabe gelditzen direnengana iristeko».

Babesa emateko interesa dutenek 943 65 21 43 telefono zenbakira dei dezatela eskatu dute, edo joan daitezela Emeterio Arrese kaleko 2.ean dagoen egoitzara.

Azken eguna ikastaroak jaso edo eman nahi dituztenentzat

Amezketako Udalak urtariletik aurrera ikastaro sorta eskaintzen jarraitu nahi du, eta eskaintza osatzeko herritarren ideiak eta nahiak jaso nahi dituzte

E. Maiz Amezketako

Zailtasunak zailtasun Amezketako Udalak abendua bitartean kultur ekitaldiak antolatu ditu, ahal izan duen moduan. Kultura Batzordeak, Gabonetatik aurrera ere lanean jarraituko duela aurreratu du, eta herritarrei proposamen berria egin die.

Herritarren ideiak bildu nahi dituzte, eta bi galdera luzatu dizkie herritarrei: «Zein ikastaro jasoko zenuke?» edo «zein ikastaro emango zenuke?». Alde batetik herrian zein ikastaro egotea nahiko luketen jakin nahi dute. Bestetik, herriko bizilagunei eman nahi diete aukera. Jakitu-

ria handiko jende asko dagoela azpimarratu dute udaletik, eta ea norbait ikastaroren bat ematera animatuko litzatekeen jakin nahi dute.

Horretarako etkez etxe banatu duten orrian idatzi eta udaletxean entregatu beharko da, edo 606 79 55 36 telefono zenbakira idazteko aukera dago. Biharko da ideiak jakinarazteko azken eguna.

Behin ideia guztiak jasota, Kultura Batzordeak, bihar, hilak 16, bilera egingo du kultur etxean. 19:00etan elkartuko dira eta bertan aztertuko dituzte jasotako ideiak. Herritarrei bilerara joateko gonbidapena luzatu diete.

Izen ematea zabalik, haurren Gabonetako eskaintzan

E. Maiz Amezketako

Amezketako Udalak aurten ere haurrei begirako Gabonetako eskaintza prestatu du. Egoera dela eta ezberdina izango bada ere, abenduaren 23 eta 30, eta urtarilaren 4erako antolatu dituzte ekitaldiak.

Izena emateko epea abenduaren 18an bukatuko da, eta garbi jarri dute epez kanpoko izen ematerik ez dutela onartuko. Izena 688 71 16 75 zenbakian eman beharko da.

Abenduaren 23an, Parkea eraikitzen ekimena izango dute Beltzaren parkea berreraikitzeke. Haurrak izango dira protagonista. LH1etik LH6ra bitarteko haurrei zuzendua da, eta maila bereiztuta, gehienez 13 haur taldeko ariko dira. Abenduaren 30ean, mendira goiz pasa egingo dute 14 haurreko bi taldetan banatuta. Azkenik, urtarilaren 4ean, *Musikarium* haur emanaldia izango da, 18:00etan, Larrunarri pilotalekuan. Gehienez, 140 ikusle sartuko dira.



zozketak

Benta - aldea
ardotegiaren eskutik
Heras Cordón ardo
beltzeko 3 botilako kaxa



Soronea denda
ekologikoan gastatzeko
40eko opari
txekea



Mahala
produktuez osaturiko
saskia



Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus



zozketak

Atarikideentzat bi sarrera dauzkagu



Gure zirkua bi sarrera.

Ostirala,
abendua 28, 12:00.
Tolosa, San Estaban
auzoa.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

Jaka eta Altuna III.a finalerdietara pasa dira

Lizartzarrak sufritu egin du Peio Etxeberriari irabazteko, Altuna III.ak buelta eman behar izan dio Elezkano II.aren aurkakoari, eta Artolak ezin izan dio aurre egin Ezkurdiari

Imanol Garcia Landa

Eskualdeko hiru pilotari finalerdietan egoteko aukera zegoen aurtengo Lau eta Erdiko Txapelketan, baina ez da posible izan. Hain justu, faboritoak izan dira aurrera egin dutenak. Erik Jakak 22-21 irabazi zion Peio Etxeberriari, ondo sufrituta gainera. Altuna III.ak partidaren hasieran sufritu zuen Elezkano II.aren aurka, 9-1 joan baitzen galtzen, baina buelta eman zion, nagusitu egin zen eta azkenean 14-22 irabazi zion. Artolak zaila zuen Ezkurdiari irabaztea, baina esperantzak bazituen; halere, hasieran markagailua parekatua izan arren, Ezkurdiak hamabost tanto egin zituen segidan, eta azkenean 22-8 irabazi zion.

Asteburu honetan, finalerdietan, Jakak Ezkurdia izango du aurkari, eta Altuna III.ak Bengoetxea VI.a. Buruz burukoaren finala, beraz, lau eta erdikoan errepikatu daiteke.

Final-laurdenetako partida bukatu ostean, Jakak ETBn adierazi zuenez, «orokorrean ez zait iruditu partida ona izan denik. Erritmo aldetik agian bai, baina askotan esaten dena, erritmo horrek ekartzen dituen zehaztugabetasun asko izan dira partidaren nire ustez». Etxeberriak berak baino partida hobea jokatu zuela gaineratu zuen: «Erritmo gehiago sartu du, ni baino sartuago zegoen partidaren, erosoago ikusten

nuen ni baino, baina lanean jarraitu dut, ez dut behin ere partida galdutzat eman, eta lana eginenez gero beti izaten da irabazteko aukera gehiago».

Lizartzarrak partida defentsagatik irabazi zuela azaldu zuen: «Gutxietsi izan da defentsan egiten dudana, baina partida irabazi badut hein handi batean horregatik izan da. Nik baino hobeto sartzen zuen pilota eskuan, abiadura gehiago ematen zion, eta angeluak nik baino hobeto bilatzen zituen. Ni oraindik buruz buruko jarrerekin sentitu naiz gehiago».

Bere aldetik, Altunak partidaren bukaeran ETBri egindako adierazpenetan esan zuenez, «ikaragarri pozik nago gaur [laurunbata] irabazita, eta oraindik gehiago partida nola joan den ikusita. Agian hasieran hankaz eta motel ibili naiz, tentsio handia nuen, baina berari ez diot meriturik kendu nahi. Azken partidetan ikusi dut aurkariak nire kontra aurrenekoetik arriskatzen hasten direla. Danelek aurreneko pilotakadatik arriskatu egiten zuen, ez zidan jokatzeko utzi nahi, ikaragarri alde egin dit, eta partida zaila jarri zait».

Garrasi bat baino gehiago bota zituen partidaren Altuna III.ak; hasieran, ez zuelako asmatzen eta bere burua partidaren sartzeko eskatuz, eta ondoren, tantoak ondo jokatu eta amaitzerakoan, bere burua animatuz. «Argi

nuen dena eman nahi nuela, eta badakigu banakako joko honetan tanto sorta segituan egiten dela, partidak segituan aldatu egiten direla».

Artolak igandean jokatu zuen bere norgehiagoka. «Txapeldun handi bat izan dut aurrean», esan zuen Artolak ETBri egindako adierazpenetan. «Ez daukat arazorik aitortzeko momentu honetan ni baino koska bat gorago dagoen pilotaria dela. Ahalmena badudala uste dut, baina une honetan ez nago bere mailan. Gaurko [igandea] esperantza izan arren, kontuan izan behar dut ez nagoela nire unerik onean: entrenamendu asko egin gabe nentorren, eta fisikoki eta batere prestatu gabe. Egun kas-karra izan behar zuen berak, eta nik dena arriskatu eta atera, irabazi ahal izateko».

URRETABIZKAIK, EZIN

Ostiralean jokatu zen Bilboko jaialdiko aurreneko partidaren ari-tu zen Beñat Urretabizkaia ikaztegi-tarra Elordiren aurka, promozio mailako Lau eta Erdiko Txapelketaren final-laurdenetan. 0-3 aurreratu zen partidaren hasieran, baina Elordik berehala eman zion buelta norgehiagokari bost tantoko bi partzialekin. 10-7 gerturatu zen Ikaztegi-takoko atzelaria, baina mallabitarrek berriz ere tarte zabaldu eta partida bideratuta utzi zuen, azkenean 22-8 irabaziz.



Aizkolari Txapelketa Nagusiaren sari banaketa. ATARIA

Jon Irazu laugarren izan da txapelketa nagusiko finalean

Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finala jokatu zen igandean Bilbo Arenan, eta Iker Vicente izan zen garailea

Erredakzioa Zizurkil

Sei aizkolari aritu ziren federazioaren abarotik kanpo antolatutako lehiaketaren garaikur bila, igandean, Bilbo Arenan. Iker Vicentek, Mikel Larrañagak, Julen Alberdi Txikia IV.ak, Aitzol Atutxa, Jon Irazuk eta Eneko Otaño hartu zuten parte Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiko finalean. Laugarren postua lortu du Jon Irazu zizurkildarrak.

Launa kana-erdiko (54 ontzako enborra), 60 ontzako eta oin-biko (72 ontzako) ebaki behar zituzten. Azkarrena Iker Vicente izan zen, 38 minutu eta 46 segundotan amaituz lana. Bigarren postua, berriz, 40 minutu eta 5 segundorekin Mikel Larrañagak eskuratu zuen. Honi segika, 41 minutu eta 27 segundorekin geratu zen hirugarren Eneko

Otaño. 44 minutu eta 32 segundorekin laugarren postua lortu zuen Jon Irazuk. Bosgarrena, 46 minutu eta 30 segundorekin, Julen Alberdi Txikia IV.a izan zen. Azken postuan geratu zen Aitzol Atutxa, 49 minutu eta 43 segundorekin.

Lortutakoarekin eta egin duenarekin «oso gustura» geratu zela azaldu zuen Irazuk: «Askosufritu dut, hasieratik indartsu samar hasi naizelako. Ez naiz batere konfiantzarekin etorri eta beldur nintzen ez ote nintzen bukaerara iritsiko. Baina, azkenean, indarrarekin eutsi ahal izan diot».

Final nagusiaren aurretik, promozio mailako finala jokatu zen, eta irabazlea Larrea III.a izan zen. Bera eta Arkaitz Jauregi dira hurrengo urtean lehen mailan ariko direnak.

Hilberriak eta urteurrenak

Ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Bonifazio Urkiola Urteaga

'Boni'

Abenduaren 12an hil zen 79 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Gurasoak: Jose Joakin (†) eta Juana Inazia (†); Emaztea: Maritxu Ugartemendia; seme-alabak: Iñigo eta Leire Zubeldia, Aitor eta Oihana Munduate; bilobak: Garazi, Kattalin, Itoitz, Eire; laguntzailea: Dana; anaia-arrebak, ezkon anaia-arrebak, koinatu-koinatak, lehengusuak, gertuko lagunak eta gainontzeko senideak.

"Urkiola berri izan da zutzat bizitza ta lana.

Gure oroimenen beti zure maixulana. Egun haundiarte ATTONA!

Eskerrik asko"

OLABERRIA, 2020ko abenduaren 15ean
HELBIDEA: Urkiola-berri Baserria



ASTEARTEA, 2020KO ABENDUAK 15
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

9.000 euro bitarteko beherapenak Carza Gipuzkoan

Taldeak eskaintza ikaragarriak egingo ditu abenduaren 16, 17 eta 18an, Olaberriako zein Oiartzungo egoitzetan; besteak beste, Peugeot, Kia, Fiat, Jeep, Alfa Romeo eta Abarth autoak egongo dira, salneurri harrigarrietan



Automobilgintzako Carza Gipuzkoa taldeak urte bukaerarako stock-ean dituen autoen likidazio salmenta handia egingo du abenduaren 16, 17 eta 18an, taldeak dituen bi egoitzetan; Olaberri eta Oiartzun, alegia. Peugeot, Kia, Fiat, Jeep, Alfa Romeo, Abarth eta beste marka batzuetako autoak eskuratu ahal izango dira, epe jakin batean, eta ohiz kanpoko prezioetan.

MATRIKULATZE ZERGA IGOKO BAINO LEHEN

Auto bat erosteko aukera ezin hobe da, izan ere urtarrean matrikulatze zerga igoko dute eta beraz, auto berri gehien salneurria igoko da.

Igoera baino lehenagoko erosteketa errazteko, Carza Gipuzkoak modelo guztiak preziorik onenean eskainiko ditu, bai auto berrietan eta baita 0 Km edo bigarren eskukoetan ere, auto bat 9.000 euroko beherapenarekin eskuratzeko azken aukera eskainiz.

Hiru egun horietan Carza Gipuzkoa Peugeot-en, Kia Novocarren, Berri Motorren eta Carza Ocasión-en, behar guztiak ase-



tzen dituen autoa erosi ahal izango da. Motor mota guztiak autoak egongo dira aukeran, gasolinazko motorra dutenetatik hasi eta elektrikoetara bitarte; turismoak, zamalanak egiteko edo bidaiariei zuzendutako furgonetak, camper-ak... bai pertso-

STOCK AZOKA

Noiz. Abenduaren 16, 17 eta 18an.

Ordutegia. 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era.

Non. Carza Gipuzkoaren Olaberriko egoitzan (Iñauti industrialdea, 21) edo Oiartzungo egoitzan (Lintzirin industrialdean).

Hitzordua. Hitzordua hartzeko feria@carzagipuzkoa.com helbidera idatzi behar da.

na pribatuentzako eta baita enpresentzako ere.

Azokara joateko izena aurrez ematea komeni da, hitzordua zehazteko. Horretarako feria@carzagipuzkoa.com helbidera idatzi daiteke. Azoka 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era egongo da zabalik.

Carza Gipuzkoa taldeak Gipuzkoako Peugeot, Kia, Fiat, Jeep, Alfa Romeo eta Abarth markak eskaintzen ditu. Era berean, bigarren eskuko eta merkealdiko prezioa duten autoen marka du ere, Carza Ocasión, hain justu. Taldeak bi egoitza ditu, bata Olaberriko Iñauti industrialdeko 21. zenbakian eta bestea Oiartzungo Lintzirin industrialdean.

AGENDA

Deialdiak

Amezketak. II. Errepublikak, Gerra Zibila eta Frankismoko datuak jasotzeko informazio bulegoa zabaldu du udalak kultur etxeko jubilatuen txokoan. 10:00etatik 12:00etara izango da aurrez aurreko ordutegia. Ordu horietara egokitu ezin duenak, dei dezala ondorengo telefono zenbakira: 677 77 46 60.

Tolosa. Irakurketa Kluba, liburutegia, 18:00etan. Monica Leivak dinamizatuta, Wangari Maathai aztertuko dute.

Tolosa. Galtzaundi euskara taldearen, irakurle taldea elkartuko da, 19:00etan, kultur etxean. Yurre Ugartek dinamizatuta, Harkaitz Canoren *Antzara Egundiliburua* aztertuko dute.

Tolosa. Eguberrietako errezeten ikastaroa, kultur etxean, 19:00etan, Ama tabernako sukaldarien eskutik. Eguberrietako otorduetan jateko proposak diren hiru errezeta sukaldatzeko ikastaroa izango da, Azoka Lagunak egitasmoan izena eman dutenentzat. Jarraitzeko bi aukera daude: presentzialki eta streaming bidez.

Erakusketak

Tolosa. EmPoderArte elkarteak eta Tolosako Berdintasun sailak antolatutako *Sorginak!* erakusketa, Aranburu jauregian.

Tolosa. Tytti Thusberg-en *Karelia Moda* jasagarriaren bilduma erakusketa Aranburu jauregian. Ehungintza da planetan ingurumen inpaktu handiena duen sektore ekonomikoetako bat, eta gaia inguruan hausnarketa eragitea eta kontsumo iraunkorraren aldeko aldaketak sustatzea du helburu.

28 KANALA

11:00. Elkarriketap (Iker Ibarluzea)

11:30. Gaurkoan Tolosaldetik

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik

16:00. Marlik musika taldeari elkarriketarako

17:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik

22:00. Tolosako Abesbatza Lehiaketa (Bach ispiuaren aurrean - Conductus Ensemble)

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Goizeko magazina, Asier Imazek gidatuta: Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, eskualdeko berriak, eskainitako abestiak, eta kolaboratzaileen txetxak.

15:00. Letren errepublika. Literaturari buruzko hamabostekaria, Jon Mirandarekin.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiaren artean eginiko arratsaldeko magazina.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Edurne Aiestaran Bengoetxea. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro lasaia izango dugu. Goizean hodeigune batzuk izango badira ere, eguzkiari traba gutxi egingo diote eta giroa lasaiaz gozatzeko dugu. Ilunabar aldera arte ostarteak izango dira nagusi zeruan. Ilunabarrean hodeiak nagusitzen joango dira, baina ez dute euririk utziko. Haizeak hego-mendebaldetik joko du, eta ondorioz tenperatura maximoa 13 eta 15 gradu artean kokatuko da.

Bihar. Zerua zikinago agertuko zaigu, baina giroak lasaia izaten jarraituko du gaurkoan ere. Erdi eta goi-mailako hodei dezente agertuko da zeruan goizean goizetik. Hala ere, ez dute bestelako ondorioz izango. Arratsaldean hodeitza trinkotzen joango da, azken orduetan zerua estalirik geratzeko delarik. Haizeak hegoetik joko du eta tenperatura maximoak 13-15 gradu artean joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.